Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

2670

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 14koa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena. Ebazpen horren bidez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetzan sartuta dagoen Auzitegiko Patologia Zerbitzuko buruaren plaza hutsa betetzeko merezimendu-lehiaketa espezifikoaren deialdia egin da.

Honako hauek araututakoaren arabera: abenduaren 23ko 19/2003 Legearen VIII. tituluak, uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa, Botere Judizialarena, aldatzen duenak; abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak onartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamenduaren 49. artikuluak eta hurrengoek; eta abenduaren 1eko 328/1998 Dekretuak, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea sortzen duenak.

Abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 12. artikuluak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen inguruan Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari dagozkion funtzioak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraiki,

EBATZI DUT:

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean hutsik dagoen plaza (I. eranskinean zehaztu da) betetzeko merezimendu-lehiaketa espezifikoaren deialdia egitea, honako oinarri hauekin:

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Auzitegi Patologiako Zerbitzuaren buruari dagokion plaza hutsa betetzea merezimendu-lehiaketa espezifikoaren bidez; plaza hori Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetzako lanpostuen zerrendan dago sartuta eta I. eranskinean zehaztu da.

Bigarrena.– Parte hartzeko betekizunak eta baldintzak.

1.– Lehiaketan parte hartu ahal izango dute Auzitegi Medikuen Kidegoko karrerako funtzionarioek; funtzionario horiek Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundean sartuta egon behar dute, eta, eskabideak aurkezteko epea amaitzean eta lehiaketaren behin betiko ebazpena eman arte, deialdi honetan zehaztutako

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

2670

RESOLUCIÓN de 14 de abril de 2011, de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, por la que se convoca a concurso específico de méritos la plaza vacante de Jefe de Servicio de Patología Forense integrado en la Subdirección de Bizkaia del Instituto Vasco de Medicina Legal.

Con arreglo a lo establecido en el Título VIII de la Ley 19/2003, de 23 de diciembre, que modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial; articulo 49 y siguientes del Reglamento de Ingreso, Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional del personal funcionario al servicio de la Administración de Justicia aprobado por Real Decreto 1451/2005, de 7 de diciembre; y, Decreto 328/1998, de 1 de diciembre, por el que se crea el Instituto Vasco de Medicina Legal.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 12 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, que establece las funciones que ejerce la Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal en materia de personal al servicio de la Administración de Justicia,

RESUELVO:

Convocar para la provisión en concurso específico de méritos, la plaza vacante en el Instituto Vasco de Medicina Legal que en el anexo I se relaciona, de acuerdo con las siguientes bases:

Primera.– Objeto de la Convocatoria.

La presente convocatoria tiene por objeto la provisión, por concurso específico de méritos, del puesto de trabajo vacante de Jefe de Servicio de Patología Forense incluido en las Relaciones de Puestos de Trabajo del Instituto Vasco de Medicina Legal integrado en la Subdirección de Bizkaia, que se relaciona en el anexo I.

Segunda.– Requisitos y condiciones de participación.

1.– Podrán tomar parte en este concurso los funcionarios de carrera pertenecientes al Cuerpo de Médicos Forenses, integrados en el Instituto Vasco de Medicina Legal, y que reúnan las condiciones generales exigidas y los requisitos determinados en esta convocatoria en la fecha en que termine el plazo de

baldintza orokorrak eta betekizun zehatzak bete behar dituzte.

2.– Halaber, lehiaketa honetan parte har dezakete, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea dakarten beste edozein egoeratan dauden auzitegi-medikuek.

Hirugarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, eskabideak Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendari andreari bidali beharko zaizkio, Gasteizko, Donostiako eta Bilboko EATko sarrera-erregistroan edo Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko erregistro orokorrean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikuluan ezarritako moduan ere bidal daitezke eskabideak.

Postetxeetan aurkezten direnak honela bidaliko dira:

a) Posta arruntaz. Honela eginez gero, Bilbo, Donostia eta Gasteizko EATetako sarrera-erregistroetan edo, bestela, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko erregistro orokorrean eman beharko zaio sarrera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

b) Posta ziurtatuz. Eskabidea irekita aurkeztu beharko da postetxean, postako langileak eguna eta zigilua jar ditzan, bidali baino lehen. Lehiaketako parte-hartzaileek postetxeko zigilua duen eskabidea bidali beharko dute; eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, ez da onartuko baldintza hori betetzen ez duen eskabiderik, nahiz eta gero gai hori egiazta daitekeen.

3.– Hautagaiek ebazpen honen II. eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko dute eskabidea, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 15 egun naturaleko epean. Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egun berean argitaratzerik izango ez balitz, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuko dira.

4.– Deialdiko lanpostua betetzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak onartuko dira.

Eskabideak onartzeko epea amaitu aurretik soilik egin ahal izango zaio uko lehiaketan parte hartzeari.

presentación de las solicitudes de participación y las mantengan hasta la resolución definitiva del concurso.

2.– Podrán participar en el presente concurso los Médicos Forenses que se encuentren en la situación administrativa de servicio activo, o en cualesquiera otras que comporten la reserva de puesto de trabajo, en el momento de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Tercera.– Presentación de solicitudes y documentación.

1.– La solicitud para tomar parte en la convocatoria, se dirigirá a la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, en el Registro de Entrada de la EAT de Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián y Bilbao, o en el Registro General del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Las solicitudes podrán remitirse también en la forma prevista en el artículo 38 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las que se presenten en las oficinas de correos se enviarán en cualquiera de las dos modalidades siguientes:

a) Por correo ordinario, en cuyo caso habrá de tener entrada en el Registro de las EAT´s de Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián o Bilbao o del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, antes de la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Por correo certificado, en cuyo supuesto se presentarán en las oficinas de correos en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario de correos antes de ser remitidas. Los participantes en el concurso deberán enviar la instancia que contenga el sello de la oficina de correos, sin que pueda admitirse pasado el plazo de presentación de instancias aquella que no cumpla este requisito, aunque posteriormente se pudiera acreditar tal extremo.

3.– Los candidatos/as presentarán su solicitud conforme al modelo del anexo II de esta Resolución, en el plazo de 15 días naturales siguientes al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial del País Vasco. En el supuesto de que la simultaneidad en la publicación en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial del País Vasco no fuera posible, los plazos se computarán a partir del día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Serán admitidas las personas solicitantes que reúnan los requisitos exigidos para la provisión del puesto convocado.

Solamente se podrá renunciar a la participación, antes de la finalización del plazo de admisión de instancias.

5.– Eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduak justifikatzen dituen dokumentazio originala edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira.

Laugarrena.– Lehiaketaren baremazioa.

1.– Alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratzeko, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data hartuko da kontuan.

2.– Merezimenduak honako baremo honen arabera ebaluatuko dira:

A) Lehenengo fasea: bete beharreko lanpostuarekin lotuta, honako merezimendu orokor hauek baloratuko dira, eta, guztira, 72 puntu lortu ahal izango dira:

1) Antzinatasuna: kidegoko egiazko zerbitzuengatik bi puntu emango dira zerbitzuan egindako urte bakoitzeko; epe laburragoak, berriz, proportzioan zenbatuko dira, hilabeteen edo egunen arabera. Horretarako, hilabeteak hogeita hamar egunekotzat hartuko dira. Kontzeptu hau dela eta, 60 puntu emango dira, gehienez ere.

2) Euskara jakitea: honako irizpide hauek hartuko dira kontuan.

a) 2. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu.

b) 3. hizkuntza-eskakizuna: 8 puntu.

c) 4. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

Ezagutza hori behar bezala egiaztatu beharko da, aurkeztutako tituluaren eta titulu horren mailaren ziurtagiri ofizialaren edo homologatuaren bidez; ziurtagiri hori eskabideak aurkezteko epean aurkeztu beharko da.

Hizkuntzaren ezagutza egiaztatzeko aurkezten diren dokumentuak behar bezala konpultsatutako dokumentuak izan beharko dira; baldintza hori betetzen ez dutenak ez dira baloratuko.

B) Bigarren fasea: bete beharreko lanpostuarekin lotuta, honako merezimendu espezifiko hauek baloratuko dira, eta, guztira, 42,5 puntu lortu ahal izango dira:

1) Patologiako eta/edo auzitegi-patologiako ezagutzak eta esperientzia:

a) Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, patologia eta/edo auzitegi-patologia espezialitateekin lotuta, erakunde publikoek edo ospe handiko erakundeek antolatutako edo homologatutako hobekuntza-ikastaroak.

Ez dira hobekuntza-ikastarotzat hartuko titulu baloragarri bat lortzeko egin behar den ikasketa-programan sartutako ikastaroak.

Ikastaroaren ziurtagiriaren kopia konpultsatuaren bidez egiaztatuko dira, eta bertan, ikastaroaren amaiera-data eta ordu-kopurua adierazita egon beharko dira. Eskatzaileari informazio gehigarria eskatu ahal izango zaio.

5.– Con la solicitud se adjuntará la documentación original o fotocopias compulsadas de la documentación justificativa de los méritos alegados.

Cuarta.– Baremación del concurso.

1.– Los méritos alegados y acreditados se valorarán con referencia a la fecha de cierre del plazo de presentación de solicitudes de participación.

2.– Se evaluarán los méritos de conformidad con el siguiente baremo:

A) Primera Fase: se valorarán, hasta 72 puntos en total, en relación con el puesto de trabajo a proveer, los méritos generales siguientes:

1) Antigüedad: por los servicios efectivos en el cuerpo se otorgarán dos puntos por cada año completo de servicios, computándose proporcionalmente los períodos inferiores por meses, o en su caso, por días. A estos efectos los meses se considerarán de treinta días. Por este concepto se valorará como máximo hasta 60 puntos.

2) Conocimiento del euskera: se tendrán en cuenta los siguientes criterios.

a) Perfil lingüístico 2: 4 puntos.

b) Perfil lingüístico 3: 8 puntos.

c) Perfil lingüístico 4: 12 puntos.

Este conocimiento deberá ser debidamente acreditado mediante la certificación oficial u homologación del título aportado y del nivel al que corresponde el título, que se deberá aportar en el plazo de presentación de solicitudes.

Los documentos que se aporten, acreditativos de estos conocimientos de idioma, deberán ser fotocopias debidamente compulsadas, no valorándose los que no cumplan este requisito.

B) Segunda fase: se valorarán, hasta 42,5 puntos en total, en relación con el puesto a proveer, los méritos específicos siguientes:

1) Conocimientos y experiencia en Patología y/o Patología Forense:

a) Se valorarán con un máximo de 10 puntos, los cursos de perfeccionamiento convocados u homologados por organismos públicos o entidades de reconocido prestigio, en la especialidad de Patología y/o Patología Forense.

No se valorarán como cursos de perfeccionamiento aquellos que forman parte del programa de estudios para la obtención de un título valorable.

Se acreditarán mediante copia compulsada de la certificación del curso, que indique la fecha de finalización del curso y las horas de duración del mismo. Se podrá pedir al solicitante información adicional.

Balorazioa honako baremo honetan adierazitako puntuazioaren arabera egingo da:

Ikastaroaren ordu-kopurua eta dagokion puntuazioa:

10-19 ordu: 0,3 puntu.

20-29 ordu: 0,7 puntu.

30-49 ordu: 1,3 puntu.

50-99 ordu: 2 puntu.

100-199 ordu: 3,3 puntu.

200-499 ordu: 6,7 puntu.

500 ordu edo gehiago: 10 puntu.

b) Eskatutako lanpostuarekin lotuta egindako argitalpenak: puntu bat argitaratutako lan bakoitzeko (gehienez ere, 5 puntu lortu ahal izango dira).

c) Patologia- eta/edo biologia-alorrean izandako esperientzia: zerbitzuak emandako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu (gehienez ere, 4 puntu lortu ahal izango dira).

d) Osasun-erakundeen zerbitzuetan erantzukizuneko kudeaketa- eta/edo zuzendaritza-postu bat betetzea: zerbitzuak emandako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu (gehienez ere, 4 puntu lortu ahal izango dira).

2) Informatika-prestakuntza: IT txartelaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzaren mailak: 0,50 puntu maila bakoitzeko (gehienez ere, 1,5 puntu lortu ahal izango dira).

3) Memoria: gehienez ere, 18 puntu lortu ahal izango dira. Merezimendu hori egiaztatzeko, hautagaiek bete beharreko lanpostuaren eduki funtzionalarekin lotutako memoria bat egin beharko dute, lanpostuari buruz dagoen informazioaren arabera; «Ezagutza bereziak» ataleko edukia bereziki hartu beharko da kontuan.

Memoriak bi zati izan behar ditu: bata, deialdiko lanpostuaren funtzioen azterketa, eta bestea, antolamendua eta/edo funtzioa hobetzeko azterketa edo programa bat. Dokumentu horrek DIN A4 neurriko 15 orrialde izan behar ditu gutxienez eta 30 gehienez, espazio bikoitzarekin idatzita; dokumentuaren hiru kopia aurkeztu behar zaizkio Balorazio Batzordeko lehendakariari, eskabideak aurkezteko epean. Horrez gain, hautagaiek memoria azaldu beharko dute Balorazio Batzordearen aurrean, betiere egoki dela uste denean, eta batzordekideek beharrezko iruditzen zaizkien galderak egin edo adierazpenak eskatu ahal izango dituzte.

Bosgarrena.– Balorazio Batzordea.

1.– Merezimenduak ebaluatzea Balorazio Batzordeari dagokio; batzorde hori Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko bi funtzionariok; funtzionario horiek Eusko Jaurlaritzako

La valoración se realizará de acuerdo a la puntuación señalada en el baremo siguiente:

Por cada curso de una duración de:

10 a 19 horas: 0,3 puntos

20 a 29 horas: 0,7 puntos

30 a 49 horas: 1,3 puntos

50 a 99: 2 puntos

100 a 199: 3,3 puntos

200 a 499: 6,7 puntos

500 o más horas: 10 puntos

b) Publicaciones relacionadas con el puesto solicitado: hasta 5 puntos, a razón de 1 punto por trabajo publicado.

c) Experiencia en Patología y/o Biología: experiencia por cada mes de servicios prestados 0,25 puntos, hasta un máximo de 4 puntos.

d) Por el desempeño de puestos de responsabilidad en gestión y/o Dirección de servicios en Instituciones sanitarias: experiencia por cada mes de servicios prestados 0,25 puntos, hasta un máximo de 4 puntos.

2) Formación en Informática: por la acreditación mediante IT Txartela de niveles de conocimiento de informática: 0,50 puntos por cada acreditación hasta un máximo de 1,5 puntos.

3) Memoria: se valorará con un máximo de 18 puntos. Para acreditar este mérito, los candidatos deberán elaborar una memoria, que versará sobre el contenido funcional del puesto a proveer, de acuerdo con la información que consta en la relación de puestos de trabajo, teniendo en cuenta, especialmente, el contenido del apartado «Conocimientos Especiales».

La memoria debe de constar de dos partes, una consistente en un análisis de las funciones del puesto convocado y otra en un estudio o en un proyecto de mejora organizativa y/o funcional. Este documento ha de tener una extensión mínima de 15 páginas y máxima 30 de páginas DIN A4, a doble espacio, y se tiene que presentar por triplicado al Presidente/a de la Comisión de Valoración, en el plazo de presentación de solicitudes. Asimismo, los candidatos expondrán la memoria ante la Comisión de Valoración, siempre que se considere conveniente, y sus miembros podrán efectuar preguntas o pedir las declaraciones que consideren oportunas.

Quinta.– Comisión de Valoración.

1.– La evaluación de los méritos corresponderá a una Comisión de Valoración que será nombrada por el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco e integrada por:

Dos funcionarios de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco destinados en el

Justizia eta Herri Administrazio Sailean egingo dute lan, eta A taldean sartuta egongo dira. Funtzionario bat Batzordeko lehendakaria izango da, eta bestea, idazkaria.

Lau auzitegi-mediku edo Toxikologiako Institutu Nazionaleko lau mediku; mediku horietako bi Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak izendatuko ditu, eta beste biak ordezkaritza gehien duten sindikatuek.

2.– Ordezko Balorazio Batzordea jatorrizko Balorazio Batzordea bezala eratuko da, eta bertako kideek jatorrizko batzordeko dagozkien kideak falta direnean bete beharko dute postua.

3.– Balorazio Batzordeak Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailari eskatu ahal izango dio adituak izendatzeko, hitzarekin baina botorik gabe; aditu horiek aholkulari-funtzioa beteko dute.

4.– Balorazio Batzordea Administrazioko kide anitzeko organotzat hartuko da, eta beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, araututakoa bete beharko du. Era berean, Balorazio Batzordeko kideek lege horretan abstentzioari eta ezespenari buruz ezarritakoa bete beharko dute.

Seigarrena.– Lanpostua esleitzea.

1.– Balorazio Batzordeak puntuazio handiena lortu duen hautagaia proposatuko du lehiaketa honetan eskainitako plaza betetzeko, betiere zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortzen badu. Berdinketa gertatuz gero, erabakia hartzeko lerrun-zerrendara joko da.

2.– Balorazio Batzordeak hautagaiaren proposamena idatziko du, eta Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendariari bidaliko dio; proposamen loteslea izango da, eta bertan, hautagaiak fase bakoitzean lortu duen puntuazioa adierazi beharko da. Azkenik, Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendariak lanpostua esleitzeko behin-behineko ebazpena idatziko du; ebazpenean baztertutakoen zerrenda eta baztertzearen arrazoiak ere zehaztuko dira.

3.– Ebazpen hori Justizia eta Herri Administrazio Saileko Intraneten eta www.justizia.net webgunean argitaratuko da.

Interesa dutenek ebazpen horren aurka egin ahal izango dute; horretarako, erreklamazio bat jarri beharko diote Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariari, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hamar egun balioduneko epean.

4.– Balorazio Batzordeak merezimenduen baremoa ezartzeari lotuta aurkezten dituzten alegazioak eta justifikazioak ebatzi eta behin betiko ebazpen-proposamena idatziko du; gero, Bulego Judizial eta

Departamento de Justicia del Gobierno Vasco y pertenecientes al Grupo A, de los cuales uno ejercerá las funciones de Presidente y otro las de Secretario de la Comisión.

Cuatro Médicos Forenses o cuatro Facultativos del Instituto Nacional de Toxicología, de los cuales dos serán designados por el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco y dos por las organizaciones sindicales más representativas.

2.– La Comisión de Valoración suplente tendrá la misma composición que la Comisión de Valoración titular y sus miembros actuarán en ausencia de sus correspondientes en la Comisión de Valoración titular.

3.– La Comisión de Valoración podrá solicitar del Departamento de Justicia del Gobierno Vasco la designación de expertos que, en calidad de asesores, actúen con voz pero sin voto.

4.– La Comisión de Valoración tendrá la consideración de órgano colegiado de la Administración, y como tal, estará sometida a las normas contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Igualmente, los miembros de la Comisión de Valoración estarán sometidos a las causas de abstención y recusación previstas en la citada Ley.

Sexta.– Adjudicación del puesto.

1.– La Comisión de Valoración propondrá para el puesto de trabajo ofertado en el presente concurso al candidato/a que haya obtenido la mayor puntuación siempre que alcance la puntuación mínima prevista. En caso de empate en la puntuación se acudirá para dirimirlo al escalafón.

2.– La Comisión de Valoración redactará la propuesta de candidato y la elevará con carácter vinculante y con expresión de las puntuaciones obtenidas en cada fase a la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, quien dictará Resolución provisional de adjudicación de destino, que contendrá, además en su caso, la relación de excluidos y causas de exclusión.

3.– Esta Resolución se publicará en la Intranet de Justicia y en la página web www.justizia.net.

Contra esta Resolución los interesados podrán formular reclamación ante la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, en el plazo de diez días hábiles contados a partir del día de su publicación.

4.– La Comisión de Valoración resolverá las alegaciones y justificaciones que se presenten en relación con la aplicación del baremo de méritos y redactará propuesta de resolución definitiva y la elevará a la

Fiskalaren zuzendariari bidaliko dio, hark dagokion Ebazpena eman dezan.

Zazpigarrena.– Lehiaketa ebaztea.

Lehiaketa hau Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariak ebatziko du hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko azken egunaren biharamunetik hasita.

Zortzigarrena.– Esleitutako lanpostuaren izaera.

1.– Eskatzaileek bertan behera utz dezakete egindako eskaera, eskabideak aurkezteko epearen barruan; beraz, epe hori amaituta, ez da atzera egiterik onartuko.

Lanpostuari ezingo zaio uko egin, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko erregelamenduaren 53. artikuluan araututakoaren arabera.

2.– Esleitutako lanpostua borondatezkotzat hartuko da, eta beraz, edozer dela ere, ez dute kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik izango.

Bederatzigarrena.– Uko egitea eta kargua hartzea.

1.– Kargua hartzeko hiru eguneko epea izango da, baldin eta ez bada funtzionarioa lekuz aldatu behar. Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak onartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko erregelamenduaren 52. artikuluan araututakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko beste leku batera aldatu behar bada, zortzi eguneko epea izango da, eta hogei egunekoa, autonomia-erkidegoz aldatu behar bada.

2.– Kargua hartzeko epea, berriz, uko egiten den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen; horretarako hiru egun baliodun izango dira, lehiaketaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hamargarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen; hau da, ebazpenaren aurkako gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Gorako errekurtsoa jarri denetik hiru hilabete pasatzen badira eta erantzunik jaso ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da; hala, administrazioarekiko auzibidea geratuko da libre.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 14a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

Directora de la Oficina Judicial y Fiscal quien dictará la Resolución correspondiente.

Séptima.– Resolución del concurso.

El presente concurso será resuelto por la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal en el plazo de tres meses, contados desde el día siguiente a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Octava.– Carácter del destino adjudicado.

1.– Los solicitantes podrán desistir de su petición dentro del plazo de presentación de instancias. Transcurrido dicho plazo no se aceptará ningún desistimiento.

El destino será irrenunciable según lo dispuesto en el artículo 53 del Reglamento de Ingreso, Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional del Personal Funcionario al Servicio de la Administración de Justicia.

2.– El destino adjudicado se considerará de carácter voluntario y, en consecuencia, no generará derecho al abono de indemnización por concepto alguno.

Novena.– Cese y toma de posesión.

1.– El plazo para tomar posesión será de tres días si no implica cambio de localidad del funcionario. Ocho días si implica cambio de localidad dentro de la Comunidad Autónoma, y veinte días si implica cambio de Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo establecido en el artículo 52 del Reglamento de Ingreso, Provisión de los puestos de trabajo y promoción profesional del personal funcionario al Servicio de la Administración de Justicia aprobado por Real Decreto 1451/2005, de 7 de diciembre.

2.– El plazo para la toma de posesión empezará a contarse a partir del día siguiente al cese, que deberá de efectuarse dentro de los tres días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso en el Boletín Oficial del País Vasco.

Décima.– Recursos.

La presente Resolución no agota la vía administrativa. Contra la misma podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Justicia en el plazo de un mes a contar desde la publicación de la misma, en el Boletín Oficial del País Vasco.

Si transcurriesen tres meses desde la interposición del recurso de alzada sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimado, quedando expedita la vía contencioso-administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2011.

La Directora de la Oficina Judicial y Fiscal,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

I. ERANSKINA

Lantokia: Auzitegi Medikuntzaren Euskal Erakundearen Bizkaiko Zuzendariordetza.

Zentro kudeatzailea: Auzitegiko Patologiako Zerbitzua.

Izena: Zerbitzuburua.

Justizia Administrazioa.

Kidegoa: Auzitegiko Medikua.

Udalerria: Bilbao.

Plaza hutsak: 1.

Dotazioa: 1.

Dedikazioa: esklusiboa.

Esperientzia: 4 urte.

Ezagutza bereziak: 03, 06 eta 14.

(Erabilitako kodeak:).

03 = Auzitegi-patologiako ezagutzak eta esperientzia.

06 = Anatomia Patologikoko prestakuntza espezializatua.

14 = Informatikako prestakuntza.

ANEXO I

Centro de Trabajo: Subdirección en Bizkaia del Instituto Vasco de Medicina Legal.

Centro Gestor: Servicio de Patología Forense.

Denominación: Jefe de Servicio.

Administración de Justicia.

Cuerpo: Médicos Forenses.

Localidad: Bilbao.

Vacantes: 1.

Dotación: 1.

Dedicación: exclusiva.

Experiencia: 4 años.

Conocimientos especiales: 03, 06 y 14.

(Códigos utilizados de conocimientos Especiales).

03 = Conocimientos y experiencia en Patología Forense.

06 = Formación especializada Anatomía Patológica.

14 = Formación Informática.